

ASTEAZKENA

2019/02/20

7. urtea, 1.009. zenbakia

107.6 fm

www.ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €



Ibarrako protokoloan parte hartu duten eragileek sinatu zuten dokumentua, atzo, Ibarrako udaletxean. IRATISAI ZAR ARTOLA

Eman beharreko pausoak zehaztu dituzte

Indarkeria sexista jasaten duten emakumeei laguntzeko babes eta arreta osoa emateko protokoloa itxi du Ibarrako Udalak; hainbat eragilek hartu dute parte eta guztiek sinatu dute dokumentua //

Kopako finalerdian bizitakoa berezia izan zela dio Eizagirrek

Nerea Eizagirre Realeko jokalaritza tolosarrak Erreginaren Kopako partida izan du hizpide //

«Bizitzen ari naizena amets moduko bat da niretzat»

IMANOL ROJO
ESKIATZAILEA

Tolosarrak iraupen eskia du bizimodu; Munduko Txapelketan arituko da hilaren 23tik aurrera //

Ikasleen greba, ebaluazio irizpideen aldaketa eskatzeko

Tolosaldeko Autodefentsa Sareak deituta hainbat ikasle greba egin zuten atzo //



zozketak

Atarikideentzat lau sarrera ditugu

'Artea dastatzu kata maridatua'

SagarArtek antolatua

bi sarrera bikoitz zozketan

Martxoak 1, ostirala 19:00 • Zizurkil, Itsasontzi baten, Egarri taberna.

Sagardoaren Kondaira

Zozketetan parte hartzeko **OSTEGUNA 13:00ak arte: 943 65 56 95** edo **www.ataria.eus**



ORIA  **BEILATOKIA**
TANATORIO

Usabal Ind., 12- 20400 Tolosa
943 69 75 79

www.funerariaoria.com

Indarkeria sexistari aurre egiteko protokoloa aurkeztu dute Ibarrran

Indarkeria sexista jasaten duten emakumeei babes eta arreta osoa bermatzea da helburu nagusia. Prozesuan parte hartu duten eragileek sinatu zuten dokumentua, atzo.

Irati Saizar Artola Ibarra

Indarkeria sexistari aurre egin nahi dioten emakumeen arreta egokia bermatuko duen koordinaziorako I. protokoloa aurkeztu eta sinatu zuten atzo goizean, Ibarrrako Udalean. Irati Ozaita politika feministako ordezkariak adierazi zuenez, protokoloaren helburua «indarkeria sexista pairatzen duten emakumeei babes eta arreta osoa bermatzea» da. Bestalde, «bide horretan beharrezko lanabes guztiak eskura jartzea ere garrantzitsua da, koordinazio egoki baten bitartez». Era berean, bitarteko horiek guztiak herritarren artean zabaltzea da nahia.

Protokoloaren diseinurako prozesuan zehar eragile ezberdinek hartu dute parte, eta, atzoko agerraldian, hartutako konpromisoa berretsi, eta dokumentua publikoki sinatu zuten honakoek: Irati Ozaita Ibarrrako politika feministetako dinamizatzaileak, Mikel Agirrezabala oinarritzko gizarte zerbitzu eta Ibarrrako Udaleko alkateak, Elixabete Ocaña Asuntzion klinikako finantza zuzendari eta berdintasun batzordeko kideak, Marisa Merino Tolosaldeko ESI-Osakidetzako kudeatzaileak, Iker Gibelalde Uzturpe ikastolako zuzendariak, eta Joxean Arzak Oriako ertzaintxeko komisari buruak. Prozesu horretan Ibarrrako Kaxkubi emakume elkarteak ere parte hartu du, baina ordezkariak ezin izan zuten ekitaldira agertu.

Indarkeria sexista egungo gi-



Prozesuan parte hartu duten eragileetako ordezkariak sinatu zuten protokoloa. Irudian, Irati Ozaita politika feministako ordezkaria dokumentua sinatzen. I. SAIZAR

zarteak duen «arazorik lazgarrienetako bat» dela esan zuen Ozaitak. «Arazo politiko, ekonomiko eta soziala da, emakume guztiak erasotzen dituen, izaera soziala, adina, estatusa, erlijioa, hezkuntza, nazionalitatea, edo bestelakorik edozein dela ere».

Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna «giza esku-bideak urratzen dituen arazo estrukturala» dela nabarmendu zuen politika feministako ordezkariak.

«Indarkeriari aurre egiteko jardun politikak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko landuko diren politiken barnean txertatu behar dira».

Era berean, herriko erakunde eta eragileek ezin dugu ardura saihestu, dagokigun erantzukizuna barneratu, eta gure artean koordinazio betebeharra dugu erantzun egoki eta integral bat eman asmoz».

URTEETAKO LANA

Badira zenbait urte Ibarrrako Udalak gaiari heldu ziola. 2016an egin zuten *Ibarrrako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana*, udaleko

teknikari eta langile, ordezkari politiko eta herritarren laguntzaz. Plan horretan, aurretik egindako emakume eta gizonen berdintasun egoeraren diagnostikoa eguneratu eta osatu zuten. Hortik abiatuta, indarkeria sexistarik gabeko herria bilakatze-ko neurriak zehaztu zituztela azaldu zuen Ozaitak. Aldi berean, 2018. urterako erronkatzat bildu zuten berdintasun planean honakoa: «Indarkeria sexista jasan duten emakumeei ematen zaien arreta hobetzeko protokolo bat lantzea, horretan inplikata dauden erakundeen artean, eta adostutako protokoloa herritarren artean zabaltzea». Erronka hori hartuta osatu dute protokoloa.

Atzoko ekitaldian, Arantza Urruzola Tolosidea ESI-Osakidetzako erizaintzaren gainbegiraleak ere hartu zuen parte, eta protokoloaren garrantziaz aritu zen: «Indarkeria matxista kasu bat kudeatzeko garaian, pertsonari modu eraginkor batean la-

gundu ahal izateko koordinazioa hobetzea aberasgarria izan da».

PROTOKOLOAREN PRESTAKETA

Protokoloa egiteko Farapi Koop. Elkartearen laguntza izan dute. Herriko errealitatean oinarrituta diagnostiko bat egin zuten, eta Maider Eguzkitza elkarteak ki-deak azaldu zuenez, «partaidetzan oinarritutako prozesu bat» izan zen. «Benetako partaidetza bermatze aldera, prozesuan parte hartu duten guztien arteko eraikuntza kolektibo bat bideratu nahi izan da, iritziak konpartitzetik haratago doana».

Protokoloaren oinarriak finkatzeko, lau saio egin zituzten iazko urte amaieran. Saio horiek, zenbait beharrei erantzuna emateko balio izan zuten ondorioztatu zuen Eguzkitzak: «Eragileek elkar ezagutzeko, besteek burutzen dituzten funtzioetan sakontzeko, eta ikuspegi bateratuak finkatzeko balio izan zuten; talde kohesioa lortzea behar-beharrezkoa baita».



IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu 943 65 56 95 zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

Iragarki guztiak iragarkilaburrak.eus-en

Alatzne Etxaburua omenduko dute Zizurkilgo Txapel Egunean

Zizurkilen, martxoaren 9an egingo dute XXVI. Txapel Eguna eta herri kirolekin aritutako herritarra omenduko dute

Erredakzioa Zizurkil

Herri kirola maila gorenean utzi duenean, egindako bidea eskertu nahi dio Zizurkilgo festa batzordeak. Herri kirolekin «bide urratzaile» izan da Etxaburua: «2013an segan Euskal Herriko lehen txapelduna izan zen emakumezkoetan eta 2015ean emakumeen arteko apustu ofizial bateko lehen garailea ere bai, ondorengo urteetan etorri diren beste txapel eta sari ugariaren artean».

Festa batzordearen hitzetan, Zizurkilek eta bere izaerak zerikusia dute Etxaburua herri kirolekin hasi izanarekin, herriko jaietarako herritarren artean egiten den kirol saiorako hartu batzuen lehen aldiz sega. «Azken urteetan ere beti egon izan da prest herriko ekimenetan parte hartzeko, eta beti irribarre batez».

Etxaburua, ez da berez zizurkildarra, baina duela hamarkada pasa bizi da bertan. Herrira etorri zenetik bertako parte izan dela nabarmendu dute festa batzordetik, eta horregatik omen du nahi dute aurtengo Txapel Egunean. Iazko txapeldunak, Xabier Pellejerok jantziko dio martxoaren 9an, Plaza Etxeberrin.

Urtero bezala, omenduak, Zizurkilgo festei hasiera eman eta suziria botatzeko ohorea izango du abuztuko Amabirjin jaietan.

XXVI. TXAPELEGUNA

Martxoak 9, larunbata

16:00. Txapeldunen muslehia, Zentroan.

17:30. Bukalai dantza taldearen emanaldia, Intxaur frontoian.

19:00. Emakumeen arteko herri kirol saioa, Zimiterioan.

21:00. Txapeldunen afaria, Plaza Etxeberrin. Txartelak salgai irarten eta Plaza Etxeberrin, 23 euroan.

Afal ostean. Xabier Pellejero iazko txapeldunak jarriko dio txapela Alatzne Etxaburuari. Afal ostea bertsoz girotuko dute Amaia Agirre eta Unai Mendizabalek.

Ertzaintzak Orixetik kaleratu ditu grebalariak

«Ikasleonek intereseko ebaluazio irizpideak» aldarrikatu ditu TASek; Orixeko zuzendaritzari «ikastetxe kanpotik datorren eraso jarraitua ulertezina» egiten zaio

Asier Imaz Tolosa

Tolosaldeko Autodefentsa Sareak deituta eskualdeko hainbat ikasleek greba egin zuten atzo. 80 bat inguru elkartu ziren Trianguloa plazan, 11:30ean. Manifestazioan Orixeko ikastetxera joan ziren, eta bertan, eraikinera sartzen saiatu. Irakasleek, ordea, ez zieten utzi eta ikastetxe eremutik ateratzeko eskatu zieten manifestariei. Hauek, bertan eserialdia egin zuten. Ondoren, Ertzaintza agertu eta manifestariak ikastetxearen eremutik kanpora bidali zituen.

EBALUAZIOA IRIZPIDEAK

TASeko kideek manifestazioaren amaieran azaldu bezala «ikasleonek intereseko ebaluazio irizpideak lortzeko» elkartu ziren atzo, Tolosan. Azken hilabeteetan hainbat «eraso» jasan dituztela salatu zuten: «Horren adibide dugu, azken unean Orixeko ikasleek greba egiteko aukera kentzea ere. Baina oker zabiltzate, borrokaren sugarra ezin baita debekatu».

Euren eskaria argia dela azaldu dute: «Historiako eta euskarako ebaluazio irizpideak moldatzea». Erabakia lehenbailehen hartzearen «urgentzia» sentitzen dute ikasleek. «Gatazka honi amaiera emateko irtenbidea zein den guztiok dakigu. Beraz, dei egiten diegu irizpideen aldaketarako prozesuko arduradunei ikasleonek hitza entzun eta gure eskaera orain

onartzea. Horrela soilik onartuko baita ikas baldintzak hobetu, eta ondorioz, horrenbeste aipatzen duten ikas komunitatean elkarbizitza egoki bat sortzea».

ZUZENDARITZAREN IRITZIA

Orixeko zuzendaritzak atzo eguerdian, grebalariak ikastetxera sartu ondoren adierazpenak egin zituen: «Ohiko bideetatik ari gara kudeatzen, gure prozedurei jarraituz beti, hori bai, eta gure barne organoei balioa emanez: ordezkariak, tutoreak... Eskolan sortzen diren eguneroko eskaera eta egoerei dagozkion erantzunak ematen dizkiogu. Familiak, kasuan kasu, jakinaren gainean daude eta alde horretatik ez dakugu arazo berezirik».

Horregatik, ulertezina egiten zaie bizi duten egoera: «Ikastetxetik kanpo eta gure eskuetatik kanpo, talde antolaturen batek, ez dakigu hezkuntza publikoaren aurkako estrategia baten barruan edo ez dakigu zergatik, sistemaren aurka edo, eta argi eta garbi nor diren esan gabe, gainera; Orixeri egiten ari diren eraso jarraitua ulertezina egiten zaigu. Eskatzen dituztenak gure eskumenetik kanpo daude hein handi batean».

Ikas komunitatearen babesa dutela azaldu dute zuzendaritzatik. «Konturatuta gaude hau ez dela ez Orixeko ez Tolosaldeko kontua. Hau beste maila bateko

kontua da, Orixen fokalizatu nahi dutena ez dakigu zein interesengatik», esan du zuzendaritzak.

Atzoko adibidea jarri zuten zuzendaritzako kideek aipatua berresteko: «Barruko egoera normaltasunez kudeatu dugu eta dena normaltasun osoz joan da kanpoko ikasleak barrura sartu diren arte. Hor saiatu gara, kanpoko ikasleek esanaz barruan ezin zutela egon; eta ez diegu utzi eraikin barrura sartzen. Kanpoko eraso hori egunerokoa da sare sozialetan; greba deialdia ere ez dute inongo elkarte erregistraturen izenean egin. Deialdiak egin dituztenak ez daude inon erregistratuak. Ondorioz, horri ezin diegu biderik eman. Ikasleek prozedura guztia dute greba deialdia egin nahi baldin badute, baina gaurko deialdiak ez zituen arauak betetzen. Alde horretatik, arautegia bete baino ez dugu egin».

Ertzaintza, atzo, eraikinaren ateetan eserita zeuden ikasleengana joan zen. Altxa eta joanez gero euren aldetik egoera bere horretan geldituko zela esan zien ertzain buruak grebalariei. Horrela ez balitz suertatuko, banaka eta «lasaitasunez» atera eta identifikatuak izango zirela esan zien. Ekinbide horren ondorioak zeintzuk liratekeen ere argitu zien, tartean, bakoitzari 600 euroko isunak jartzea. Ikasleek, hitza hartu ondoren, euren kabuz atera ziren ikastetxetik.

Asteburu pasa egin dute Vilafranca del Penedesen

TOLOSALDEA // Loatzo musika eskolako 50 lagun inguruk elkar trukea egin dute asteburuan Herrialde Katalanetako Vilafranca del Penedesen. Bisitak egiteaz gainera, kalejirak eta emanaldiak eskaini dituzte bidai honetan. Maiatzean etorriko dira bertako musika eskolakoak eskualdera. Bestalde, aurreko asteburuan, Andoaingo Piano Jaialdian, Loatzo musika eskolako 11 ikaslek hartu dute parte.

Euskal Herriko basogintzaren erronkak eztabaidagai

AMASA-VILLABONA // Alkartasuna fundazioak saioa antolatu du gaur, 19:00etan, Villabonako Subijana etxean. Intsignis pinuaren gaitzak euskal basoak zeharo jo dituen honetan, egungo Euskal Herriak duen basogintza politiken inguruan gogoeta egiteko une egokia dela uste du fundazioak. Oskar Azkarate eta Josu Azpitarte BaskEgur-eko ordezkariak; Itziar Barinaga-Rementería, EHUko irakaslea; Roke Akizu, Baso ingeniaria; eta Aitziber Sarobe, biologoa eta irakaslea ariko dira hizketan.

Venezuelari buruzko hitzaldia emango dute, bihar, Larraulen

LARRAUL // Agustin Otxotorena, Venezuelen bizi den euskal enpresariak emango du bihar hitzaldia, elebitan, Larraulgo Kati-lu Txulo elkartearen, Larraulgo Udalak, Larraulgo Kultura Batzordeak eta Katilu Txulo elkartearen antolatu dute biharko hitzaldia. Gaur egun, Venezuelak bizi duen egoeraren berri emango du bertan Otxotorenak.

'El poder de la esperanza' liburua aurkeztuko dute bihar

ADUNA // Kultur aretoan 18:30ean egingo da aurkezpen saioa eta Antonio Muntadas-Prim Burguete egileak hitz egingo du. Bere semeek espektro autistaren nahasteak dituzte. *El poder de la esperanza* liburua idatzi du Muntadas-Primek, guraso bezala bere esperientziaren berri emateko. «Esperantza eta indarrez» betetako mezua da liburuarekin helarazi nahi duena.

Asteasuko festen barruan aldaketak izango dira aurten

ASTEASU // San Pedro jaiak Asteasun, ostegunetik igandera, ekainaren 27tik 30era ospatuko dira. Honenbestez, kuadrillen eguna, ostiralean, ekainaren 28an egingo da, aurten San Pedro eguna larunbatez egokitzen delako. Herri afaria, larunbat gauean egingo da eta kontzertu nagusia ere larunbatean mantentzea erabaki dute. Hurrengo festa batzordea, otsailaren 26an egingo da, 19:30ean.



Imanol Garcia Landa Tolosa

Hitzordu garrantzitsua du Imanol Rojo (Tolosa, 1990) eskiatzaileak aurtengo denboraldian: Munduko Txapelketa. Bi urtez behin egiten da lehiaketa hori eta aurtengoa laugarrena izango da Alpino Uzturreko eskiatzailearentzat.

Denboraldiko zein probatan parte hartu duzu dagoeneko eta zein emaitza lortu dituzu?

Hasiera batean ideia zen Munduko Kopan gehiago parte hartzea, baina ez nintzen ondo hasi, Europako Kopako eta FIS lasterketa gehiago egin nituen, baita Austriako Kopa eta beste hainbat txapelketa ere. Han gustura ibili naiz, dena den, eta podiumak egin ditut Austrian. Europako Kopan hamar lehenengotatik gertu ibili naiz ere. Nire ustez pauso bat eman dut Munduko Txapelketari begira. Denboraldiak aurrera egin ahala, gero eta hobeto sentitzen naiz eskien gainean.

Iraupen eskian, zein probatan parte hartzen duzu?

Bi eratan ibiltzen naiz, skating eta klasiko eran. Normalean hamar eta hamabost kilometrotako lasterketak izaten dira, eta gero saio nagusietan 30 eta 50 kilometro ingurukoak ere izaten dira. Ezin dena da astebururo 30 edo 50 kilometrotako probatan aritu, bestela ez ginen iritsiko denboraldi bukaerara.

Badago bestelako modalitate-rik iraupen eskian?

Normalean klasiko eta skating izaten dira. Badago mistoa den beste modalitate bat: hasieran klasikoan aritzen zara eta gero skatingean, probaren erdian aldatzen dituzu eskiak eta maki-lak, eta jarraitu egiten duzu. Munduko Txapelketan eta Olinpiar Jokoetan egiten da.

Eta zein modalitatetan moldatzen zara ondoen?

Normalean skatingean lortzen ditut emaitza hobeak, baina kla-

«Lehen hogeita hamar sailkatuen artean sartzea postu on bat litzateke»

IMANOL ROJO ESKIATZAILEA

Imanol Rojok iraupen eskia du bizimodu. Eskiatzaile batentzako adin egokiena du, eta Munduko Txapelketara ehuneko ehunean lehiatzera joango da.



I.G.L.

sikoa asko gustatzen zait. Europa iparraldekoak asko ibiltzen dira klasikoan, eta nabaritzen da pixka bat atzeratuta gaudela modalitate horretan.

Otsailaren 23an hasten zarete

Munduko Txapelketan, bi urtez behin egiten dena.

Bai, nire laugarren Munduko Txapelketa izango da, eta gogoz gaude dena emateko. Seefeld en egingo da, Austrian, Innsbrucke-

tik gertu. Bi edo hiru aldiz izan dut bertan lehiatzeko aukera eta leku ikaragarria da.

Zein probatan lehiatuko zara? 23an hasiko naiz, eta 30 kilometroko proba mistoa egingo dut,

hamabost klasiko eran eta beste hamabost skatingean. 27an hamabost kilometrotako erlojuaren kontrakoa, klasiko eran, eta bukatzeko, 50 kilometrotako karrera luzean skating eran, martxoaren 3an. Bertan pare bat aste pasako ditugu eta, esan bezala, dena emateko gogoz nago.

Eta zein da zure helburua?

Ez noa esperientzia hartzera, dagoeneko hiru Munduko Txapelketa egin ditudalako. Nire helburua da ehuneko ehunean iristea, materialarekin arazorik ez izatea eta dena ondo joaten bada, aurreko Munduko Txapelketetan egindako emaitzak hobetzea.

Eta postu jakin baten bila joango zara?

Postu on bat lehen hogeita hamar sailkatuen artean sartzea litzateke. Horrekin pozik egongo nintzateke. Baina nire helburua da ehuneko ehunean iristea eta gero ikusiko da.

Egun bera ere nola joaten den zerikusia izango du, ezta? Azken finean, proba luzeak izango dira.

50 kilometrokoa bi ordu inguru izaten dira. Baina ez da kontuan hartu behar fisikoa bakarrik, kirol honetan materiala ere kontuan hartu behar da.

Eguraldiak ere zerikusia izango du, ezta?

Bai, eguraldiaren arabera hartzen ditugu eski batzuk edo besteak, eta beste faktore bat izaten da.



1 EUREKA zientzia museoa
Bi lagunentzako bina sarrera konbinatu (museo eta planetariuma)

www.eurekamuseoa.es/eu
943012478

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**



eureka!
zientzia museoa
kutsa FUNDATZIOA

harpidedun izateak badu saria zozketa

2 DONOSTIAKO AQUARIUMA
Bi lagunentzako bina sarrera



www.aquariumss.com

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**

3 BASONDO FAUNA BABESLEKUA
Familiarentzako sarrera bikoitz bi (nagusia+umea)



94 625 44 36
www.basondo.com/eus/
info@basondo.com
Kortezubi (Bizkaia)

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**

Parte hartzeko deitu **902-82 02 40** telefono zenbakira edo sartu **www.ataria.eus** webgunean • Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.

Munduko txapelketan faboritoak zein izaten dira, Europa iparraldekoak?

Norvegiarrak, suediarrek, errusiarrek, tradizioa duten herrialdeak, azken finean.

Euskal Herriak beste norbait joango da?

Hasiera batean ez. Sailkatzeko irizpide batzuk izaten dira, eta inork gehiagok ez du sailkatzea lortu. Atzetik datozenak oraindik gazteak dira, eta lana egiten badute ea pixkanaka etorkizunean iristen diren Munduko Txapelketa batera.

Zeintzuk izaten dira irizpideak?

Denboraldi hasieran ematen dizkigute idatziz, eta normalean izaten da Munduko Kopatan edo Europako Kopatan postu jakin batetik behera egitea, hau da, 15 edo 30 lehenengoetan egitea. Ez da denbora jakin bat egin behar dela, postuen arabera doa.

Eta zuk azkar bete zenuen?

Egia esan, azkar bete nuen. Iaz, Olinpiar Jokoen ondoren, martxoan lortu nuen. Gero beste bitan ere lortu dut denboraldian zehar.

Munduko Txapelketa izanik denboraldi honetan, horri begira egiten duzu prestaketa?

Bai, eta aurten aldatu egin dugu. Batzuetan sailkatzea oso zaila izaten da, eta oso sasoi onean zaude denboraldi hasieran, eta gero Olinpiar Jokotara edo Munduko Txapelketara oso nekatuta iristen zara. Aurten pixka bat ezberdina egin dugu. Bakarrik Munduko Txapelketa prestatu dugu, eta helburu bakarra da bertan ehuneko ehuneko egoitea. Beste karrera guztiak prestakuntza moduan hartzen ditugu.

Eta ondoren noiz arte iraungo du denboraldiak?

Martxo bukaera arte irauten du, eta normalean denboraldi amaieran Espainiako Txapelketak izaten ditugu. Tartean Europako Kopa eta Munduko Koparen bat ere bai. Eta horrekin bukatzen dugu.

Ba al duzu aurtengo Espainiako Txapelketan parte hartzeko asmorik?

Bai, ilusioa ere egiten du Espainiako onena izatea hainbeste urtetan eta ea aurten ere izateko aukera dugun.

Gogoan duzu zenbat txapelketa irabazi dituzun?

2014tik uste dut denak irabazi ditudala. Ez da erraza izaten, eta ea atzetik etortzen direnak gero eta gehiago presionatzen duten.

Orain 28 urte dituzu. Iraupen eskirako adin ona da?

Esaten dute erresistentziako ki-

roletan, eta iraupen eskia horrela definituko genuke, 28 urtetik 32 urte bitartera izaten dela sasoi onena, eta emaitza onenak adin tarte horretan lortzen dituzula. Hogeitaz urte dituzula zaila da kirol honetan nabarmen-tzea, nahiko atzeratuta gaude-lako, eta adin horretan ondo ari-tzeko baliabide gehiago behar-ko genituzkelako. Horregatik, egun dudan adina baino lehen emaitzak lortzea oso zaila izaten da.

Beraz, orain zaude adin one-nean. Eskarmentuak ere zerikusia izango du.

Bai, esperientziak azkenean asko egiten du, eta baita ere kanpora ateratzeak lasterketa asko egitera. Egia esan, ni eskien gainean gero eta hobeto sentitzen naiz, eta hori azken bi urteetako emaitzetan ikusten da.

Nola izaten da zure egunerokoa?

Irailetik aurrera elurretan ari-tzen gara. Goizetan eskiatzen dugu, eta gero, arratsaldetan, gimnasia joan edo korrika egiten dugu, astearen arabera. Maiatzean hasten gara oinarria hartzeko bizikleta egiten, mendira joaten, rolleskian aritzen, gimnasioan... Abuztua arte denetatik pixka bat egiten dugu.

Baina iraillean eskiatu ahal izateko, hemendik gertu ez zara ibiliko.

Glaziarretara joaten gara, pixkana eskien gainean hobeto sentitzeko, eta lasterketei begira intentsitatea sartzeko. Italia eta Austria aldera joaten gara, eta han dituzten glaziarretan, 3.000 metrotara, eskiatzeko aukera izaten dugu.

Beste kirolekin, adibidez, txirrindularitzan, batzuetan al-turan entrenatzen dute. Zuek beti zaude modu horretan entrenatzen.

Bai, irailetik elurretan entrena-tu behar badugu leku horietara joan behar dugu. Oso gogorra



ATARIA

izaten da 3.000 metrotara eskiatzea, arnasa hartzea eta zailagoa delako, baina horrelako altuetara joan beharra daukagu. Normalean bertan elkartzen gara eskiatzaile denak, elurra- ren bila joaten gara eta.

Tolosako Alpino Uzturre klu-bekoa zara, baina entrena-menduak zeure kasa egingo dituzu, ezta?

Kirol indibiduala da, eta jende askok egiten ez duenez, norma-

«Denboraldiaren helburu bakarra Munduko Txapelketan ehuneko ehuneko egotea da»

«Bizitzen ari naizena amets moduko bat da; nire pasiotik bizitzeko aukera izatea ikaragarria da»

lean bakarrik entrenatzen dugu. Tarteka elkartzen gara eskiatzaile batzuk, baina denboraren %80 edo gehiago bakarrik entrenatzen dut. Aurten izan dut aukera norvegiarrekin entrenatzeko eta pixka bat talde bezala entrenatu ahal izan dut.

Nola sortu da norvegiarrekin entrenatzeko aukera?

Lasterketetan lagunak egiten

dituzu eta nik Norvegiako lagun bat dut eta galdetu zidan ea beraiekin nahi nuen entrenatu. Zenbait kontzentrazioetan bat egin dut beraiekin, eta egia esan kalitatezko jauzia ematen lagundu dit.

Entrenatzailea baduzu, noski.

Duela lau urtetik Espainiako selekzioan dagoen italiar batek entrenatzen nau. Planifikatu egiten dizkit entrenamenduak, eta nire kabuz entrenatzen dut. Ez dut izaten inor gainean nola ari naizen egiten esateko. Kontzentrazioetan bai, baina bestela bakarrik entrenatzen dut, eta ni neu naiz nire buruari esan behar diodana goizero entrenatze-ra joateko.

Espainiako selekzioarekin kontzentrazioak ere egin ohi dituzu?

Gazteekin zenbait kontzentrazio egiten dira, eta ni ere beraiekin elkartu naiz udan, eta iraila eta urriaren erdialdean. Garrantzitsuak dira; horiek gabe ezinezkoa izango litzateke emaitzak lortzea.

Egun kirolak hartzen dizu zure denbora gehien, ezta?

Bai, kirola da nire bizimodua. Inork ez dit esan behar entrena-tzera joateko, nire bizitza da, hori gustatzen zait, eta ez bainaiz entrenatzen gero ez dira

emaitzak etorriko, eta ondorioz, ez dira bekak iritsiko.

Nola lortzen duzu finantzia-zioa?

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Basque Team fundazioak, federazioak, Olinpiar Jokotara joateko ADO bekak... Baina azkenean oso zaila izaten da honetaz bizitzea. Olinpiar Jokoen ondoren tarte bat izan ohi da ez dagoela Munduko Txapelketarik, eta ez dira hainbeste laguntza izaten. Azkenean gastu asko dira, bidaiak eta materiala... Gainera orain hiru urte erabaki nuen Vielhara (Katalunia) bizitzera joatea, neguan elurretik gertu egoteko, eta azkenean hilero gastu bat da. Eta hori dena beka bitartez ordaintzen dut, eta nire emaitzak onak izan behar dute. Presioa hor dago.

Babesleak ere badituzu, ezta?

Batez ere, materialarentzat. Eskiak eta makilak ematen dizkide, ezer ordaindu gabe, eta ez da gutxi, ezin gara kexatu.

Zer da zure kirol ibilbideko zailena?

Zailena izaten da askotan bakarrik aritzen zarela entrenatzen, eta etxetik kanpo denbora asko pasatzen duzula. Maiatzetik aurrera etxetik kanpo aritzen gara, eta azarotik aurrera hilero hiru aste kanpoan ematen ditugu.

Eta gustukoena?

Egiten dudana pasio bat dela, gustatu egiten zait. Bizitzen ari naizena amets moduko bat da niretzat; nire pasiotik bizitzeko aukera izatea ikaragarria da.

Bi Olinpiar Jokotan parte hartu duzu. 2022an Beijinen egingo direneta joateko asmorik?

Ikusi egin behar da nolako laguntzak dauden, eta, noski, zer emaitza lortzen ditudan. Azkenean motibazioa ere behar da jarraitzeko, eta Munduko Txapelketa hauetan gertatzen denaren arabera ikusiko da zer egingo dudan etorkizunean.



XOILAN
GARBIKETAK

KOMUNITATE, GARAJE, BULEGO, LANTEGI, MERKATARITZA-LOKAL, ERAIKUNTZA PUBLIKO ETAB-EN MANTENIMENDUA, KRISTALAK, GARBIKETA OROKORRAK, OBRA ONDORENGO GARBIKETAK, LURZORUEN DISDIRATzea....

T. 943 670 626 S: 659 045 765 / 699 839 166
Igarondo, 1 - behea - **TOLOSA**

info@xoilan.com
www.xoilan.com



galdaratz
horts klinika | clínica dental

Zurekin hobetuz
Mejoramos contigo

Endodontzia	Implantologia
Aho kirurgia	Periodontzia
Ortodontzia	Horts estetika
Panoramika 3D	Protesia
PADI Osakidetza	

Rondilla kalea 5, 20400 Tolosa, Gipuzkoa
943 50 84 24  galdaratz@gmail.com



Gorka Lopez Ugartemendia
kolegiatu zenbakia: 20000691

Nerea Eizagirre: «Ea astebururo Anoetan jokatzetik dugun»

Kopako finalerdian Anoetan bizitakoa «oso berezia» izan zela esan du Realeko jokalaria tolosarrak

Imanol Garcia Landa Tolosa

Igandean Realak Sevillari irabazi zion Erreginaren Kopako finalerdia, eta talde txuri-urdinak lehenengo aldiz jokatu du finala. 18.000 zaletik gora elkartu ziren Anoeta estadioan, eta partida eta giroa «oso berezia» izan zirela azaldu du Nerea Eizagirre Realeko jokalaria tolosarrak. «Finalera iristea denon amets bat zen, lortu genuen eta oso gustura gaude. Nik uste dut oraindik ez garela guztiz kontziente lortu dugunaz. Egia esan, han bizi izan genuen giroa, eta gero partida ondorengo ospakizuna, oso bereziak izan ziren».

Aurreko asteburuan Athleticen aurkako derbia jokatu zuten eta orduan hogeita mila pertsonatik gora izan ziren Anoetan. «Derbira jende asko etorri zen



Nerea Eizagirre, bigarren eskuinetik, igandeko ospakizunetan. REAL SOCIEDAD

eta bagenekien Kopako finalerdietara ere jende asko etorriko zela, baina partidaren ondoren mikrofonoa hartu eta denak abesten egotea, gurekiko horrelako gertutasuna sentitzea, ez genuen espero. Azkenean ikusi zen jendea ere gurekin dagoela eta guretzat horrelako zerbait bizitzea garrantzitsua da».

«Emakumeen kirola igotzen

ari dela esan du tolosarrak. «Jende gehiagok ikusten du, gutaz gehiago daki eta interesatzen da. Emakumeen kirola aspaldidanik ematen ari da pauso hori. Oraindik asko dago egiteko, baina egia esan, bide onean goaz». Pauso horietako bat astebururo Anoeta estadioan jokatzeko izan daitekeen galdetuta, Eizagirrek erantzun du baietz, ez lukeela izan

behar noizbehinka jokatzeko, «astebururo jokatzeko guretzako garrantzitsua da, baina oraindik gauza asko daude egiteko, klubaren aldetik, komunikabideen aldetik...». Azkenaldi honetan gauzak ondo egiten ari direla gaineratu du: «Guretzat zerbait polita da, eta espero dugu noizbait Anoetan astebururo jokatzeko».

Athleticen aurkako derbian gola sartu zuen Eizagirrek, baina hori gutxienez izan zela dio: «Garrantzitsua bizi izan genuen giroa izan zen, jakinik Kopako finalerdia gurelako hurrengo asteburuan», esan du Eizagirrek. «Azkenean jendea etortzea eta gure futbolarekiko interesa izatea guretzat oso polita da».

Eizagirren ametsetakoa bat, hain justu, Anoetan jokatzeko zen, eta hori lortu du. «Futbolearen hasten zarenean ez zara hori ikusten, gainera neskak beti Zubieta aritu dira», esan du futbolari tolosarrak. «Lehenengo ametsa Realera iristea zen. Behin bertara iritsita, Anoetan jokatzeko zerbait polita da. Ea egunen batean normaltzat hartzen den.

Izan ere, nire ustez konturatu behar gara jendeak ez duela arazorik gu ikustera joateko». Bi asteburutan jarraian jokatu dutela eta bietan bete dela esan du. «Ametsak bete dira eta jarraituko dugu».

Kopako finala Atletico Madrilaren aurka jokatu dute, maiatzaren 11n, Granadan. «Finala zaila da. Liga begiratzeko badugu, Atletico Madril lehenengo doa, eta talde gogorra da, jokalaria onak ditu, baina final bat final bat da, eta biok jokatu dugu etxetik kanpo». Ahal duten ondoren prestatuko dutela, eta aurretik ez dutela finala galdutzat emango gaineratu du futbolari tolosarrak.

Finalera zenbat zale joango diren ez daki Eizagirrek. «Espero dugu ahal den jende gehiena joatea. Behintzat, guretzako familia eta gertuko jendea bertara joatea garrantzitsua izango da».

Koparen finalera iristeko lorpenaren Ligak zerikusia handia duela dio Eizagirrek. «Gauzak ondo egiten ari gara. Gonzaloren egunero gauzak hobetzen ari gara eta ligan ondo goaz. Seigarren postuan gaude, eta hortxe ditugu Athletic eta Betis aurretik. Horrela jarraituz gero, ea zer postutan bukatu ahal dugun».

#11, #34, #77, #146, #378... batzuetan ere gehiago izaten dira



Aulkitik
Iraitz Garitano
Tolosa CF, Euskal Liga

Lesio laburrak zein luzeak, futbolari baten ztat gogorrak izaten dira. Mina alde batera utzita, gogorrak da taldekideekin batera ez zaudela ikustea. Bakarrik zauden entrenamenduetan edo zure egoeran dagoen beste taldekide batekin pasatzen dituzu orduak. Goma berdeen lagun egiten zara, inoiz

baino ordu gehiago gimnasioan, ariketen papera eskuetan duzula entrenatzaile edo prestatzailearen azalpenak entzun, eta bakardadara.

Infantiletan Nahia Ayerza erreperatu berri, baloiaz gozatzen... Duela gutxi ikusi ditugu Usabalen bakoitzak bi maku lu eskuetan dituela Garazi Alkain eta Maria Dominguez.

Kadeteetan Malen Magrok orkatila madarikatuarekin nahikoa lan badu, Jare Riañok arazoak kokxizean... denbora dezente minez. Nahia Aparizok Euskal Selektzioaren deia jaso eta lesio baten erruz ezin duela joan erantzutea gogorra da. Javi Martinez entrenatzaileak lunbagoa du: urteak ez dute barkatzen *Javitxu* (kar, kar).

Erregionalean Nahia Larrañaga osatuta ikusten dugu... denok dakigu nondik pasa den. Ea Alison, Laida eta Ballano denbora luze ikusten ditugun zelaian, momentu gogor eta luzeak pasatakoak dira eta.

Paula Romanosek bi urte daramatza borrokan eta ez du etsiko... denon eredu zara Paula!

Euskal Ligan Irati Aldalur eta Aiora Galarza egun berean min hartuta batera ibiltzen dira entrenamenduetan; behar baino gehiago luzatzen ari zaie dena...

Segituan bueltatuko diren esperantzarekin gaude denok; animo neskak!

Oihana Ugartemendiak badi-rudi azkenean argia ikusiko duela iluntasunean hilabete asko egon ondoren, altaren zain gaude *beastii*!

Maria Martijak #378 egun bete zituen larunbatean lesionatu zenetik; belaunean betirako marka izango du. Taldekideak ez ginen bere berragerpenean egon, Hernanira bidaia genuen, baina asko poztzen gara Maria. 3 puntuez baino gehiago poztzen gara zure itzuleraz. Denok dakigu zenbat lan egin duzun larunbateko eguna iristeko, merezi duzu. Albiste hauen aurrean partiduetako emaitzak alde batera geratzen dira.

Badira beste asko jokatu ari direnak eta horrelako momentuak pasata daudenak. Ea denok urtea osasuntsu eta baloiaz gozatzen amaitzen dugun.

Gora Tolosako neskak!



Martxoaren 16a larunbata, arratsaldeko 16:00etan eta 18:30ean, Tolosako Leidor antzokian

Bi saioetan azken 250 sarrerak salgai
Otsailaren 18tik 22ra eta 25tik 27ra atariaren bulegoan salgai: 10:00-17:00

Eserlekuak zenbakituak izango dira eta bakoitzaren salneurria 8

Antolatzailea: Tolosaldeko Ataria
(San Esteban auzoa, 20, Tolosa 943 65 56 95 - ataria@ataria.eus)

Udalaren Twitter kontuaren erabilera zalantzan jarri dute

Pasa den larunbatean Tolosako Udalaren kontutik zabalduko txio baten inguruan azalpenak ematea eskatu du EH Bilduk.

J. Artutxa

Tolosako EH Bilduko Lore Agirre eta Kristina Pelaez zinegotziek, azken asteetan herritarrengandik jasotako kezka eta oposizio-kideek bildutako zalantza azaleratu nahi izan zituzten, udal gobernuak bere komunikazio bitartekoei emandako erabilerragatik. «Maiatzeko udal hauteskunde begira, sare sozialetan erabiltzen ari den esposizioa gehiegizkoa ez ote den galdetzen dute askok». Sarritan publikoaren aurrean aritzeak, gobernu alderrdia ikusgarri egitera bideratzen duela «ukaezina» dela adierazi zuen Pelaezek. «Baina, udal baliabideak alderdiaren mesedetan propaganda egiteko erabiltzea beste kontu bat da».

Larunbatean Tolosako Udalaren Twitter kontu ofizialak zabalduko txio batek atentzioa deitu zien oposizio-kideei. Bertan, EAJ-k Zurekin aldizkaria kalera-

tu duela eta Olatz Peon alkategaia bertan izango dela iragaritzen zen, aldizkaria ikusteko estekarekin batera. «Argi erakusten du udal gobernuaren propaganda zela». Txioa ezabatu eta ondoren alderdiaren kontutik zabaldu zuten. «Akatsaz ohartu ziren, baina hanka sartzea egina dago».

«Txioak berak baino gehiago, guzti honen atzean dagoenak kezkatzen gaitu», gehitu zuen Agirrek. «Argi ikusten da pertsona berak kudeatzen dituela bi kontuak, bere neutraltasuna zalantzan jarritz». Ondorioz, zenbait galdera planteatzen dituztela esan zuen. «Agiar alderdiaren kontua kudeatzen duen norbaitek, udalaren kontua erabiltzeko sarbidea ere badu». Hala ere, «muga gainditu dutela» nabarmendu nahi izan zuten. Arrazoiak edozein delarik, «ahalik eta azkarren eta zehatzen, udal gobernutik arrazoiak eta azalpenak ematea» eskatzen dute.

GUTUNA

Helburu politikoak dituzten salaketak akats batengatik

Udalak sare sozialetan argitaratutako eduki baten harira EH Bilduk egindako adierazpen eta eraso larrien aurrean, udal gobernu taldearen izenean, udaleko gizarte sareetako arduradunak ondorengo dio: sare sozialetan kontu ezberdinak kudeatzen ditugunok egin dezakegun hanka sartze batez baliatzen ari da EH Bildu, udaleko komunikazio arduradunaren eta udal gobernuaren kontra egiteko. Udal komunikazio kanalak helburu politikoekin erabili ditugula dio, baina akats bat besterik ez da izan, segundo gutxira zuzentzen ahalegindu ginen hanka sartze bat. EH Bilduk, aldiz, guri galdetu aurretik, hedabideengana jo du, helburu batekin: tolosarren artean zalantza sortu eta azpijokoan gabiltzala esatea. Baina hori ez da errealitatea.

Argi utzi nahi dugu, legealdi osoan, behin ere ez ditugula uda-

leko komunikazio bideak gure mesedetan erabili. Hanka sartu dugu, eta barkamena eskatzen diegu tolosarrei, baita EH Bilduko ordezkariari ere, egindako akatsagatik eta sortutako eragozpengatik.

Azkenik, udaleko komunikazio arduraduna alkatetzatik pertsonalki eta zehazki izendatutako kargua dela gogorarazi nahi nuke, gertukoa eta konfiantzazkoa. Beraz, ez da teknikaria, ezta funtzionarioa ere, udalaren zerbitzura dagoen figura bat baizik, funtzio eta eginkizun zehatz batzuk dituen, beste hainbat legealditan gertatu den moduan. Hortaz, lekuz kanpo dago EAJ-ren kanpaina tolosar guztiak ari garela ordaintzen esatea. Ez da zilegi akats batengatik komunikazio arduradunaren profesionaltasuna zalantzan jartzea. Edonola ere, barkamena eskatzen dizuegu egindako akatsagatik eta jakinarazten dizuegu horrelakorik berriz ere gerta ez dadin neurriak hartu ditugula.

Joseba Ormazabal

Tolosako parte hartze zinegotzia

Bandres-Karolo memoriala, asteburuan

Izaban jokatuko dira bakarkako eta kronoigoerako eski probak, Euskal Herriko Koparako puntuagarriak. Eguraldi ona aurreikusten dute antolatzaileek.

Josu Artutxa Dorronsoro

Noaingo Mendi Taldeak antolatuta, asteburuan, zortzigarren Bandres-Karolo memorialeko probak jokatuko dira Izaban (Nafarroa). Irabazi asmorik gabeko taldeak, mendiko eskiko bi proba antolatu ditu. Batetik, erlojuaren aurkako igoera egingo da, eta bestetik, bakarkako proba. Irteera eta helmuga Izaba inguruan ezartzea aurreikusten duten arren, eguraldiaren arabera izango da, eta ostiralean baieztatuko dute. Aurtengo edizioan, gainera, Aitor Otxoa oñatiarrari Bandres-Karolo saria emango diote, eskiatzaile honen urte luzeko ibilbidea omentzeko.

Azken zazpi urteetan, seitan jokatuta da Euskal Herriko Txapelketa bertan, eta aurten ere horrela izango da. Gainera, Euskal Herriko Koparako lehen proba puntuagarriak izango dira. Mendiaren baloreak sustatzea helburu duen lasterketak, inoizko partaidetza handiena izango da. «Euskal Herriatik aparte, Andaluziatik, Madrildik eta Frantziatik ere joango dira eskiatzaileak». Antolatzaileentzat, «sorpresa izugarria» izan da 13 egunetan dortsal banaketa-ekin amaitzea.

PROBA, EGURALDIAREN MENPE

Urtero bezala, bakarkako proban bi ibilbide izango dira: A eta B ibilbideak. «Elurak baldintzatuko du ibilbideak nondik nora izango diren». Lehenak, 22-25 kilometro inguruko luzera eta 1.600-1.900 metro inguruko desnibela izango



Iaz Izaban jokatuako Bandres-Karolo memorialeko probako irudia. JOSEBA ARLEGI

ditu, eta B ibilbidea, berriz, 12-15 kilometro inguruko luzera eta 1.000 metroko desnibela. Kronoigoeraren ibilbidearena, aldiz, 600-900 metro ingurukoa izango da. «Ibilbide polita eta tradizionalak» izango direla aurreratu zuten.

Beti bezala, eguraldi iragarpenaren menpe aritu beharko dutela aitortu zuten antolatzaileek. «Oso zaila da alde aurretik zein ibilbide egingo diren zehazki jakitea». Ondorioz, lasterketen aurretik egingo diren bileretan emango zaie ibilbideen berri. «Sorpresa ematea gustuko dugu». Aurten, ordea, «baldintza izugarriak» izango direla, eta «jendeak elurraz gozatu ahal duela» aurreikusten dute.

BERTSO-POTEOA ETA GUZTI

Aurtengo ediziorako, egitarau oparoa osatu dute antolatzaileek. Eskiaz haratago, bestelako hainbat kontuz gozatzeko aukera ere

izango da. Ostiralean, dortsalak banatuko dituzte, eta bilera bat egingo dute, azalpenak eman eta informazioa helarazteko helburuarekin.

Larunbatean, 9:00etan hasiko da lehen proba eta 12:00etan luntxa izango da. 17:00etan, Iñaki Arakistainek eta Joseba Larrañagak hitzaldia eskainiko dute, iaz Nepalgo Drangnag-Ri (6.801 metro) mendian izandako esperientziaren inguruan. Emanaldiaren ostean, bertso poteoa egingo dute, Aimar Karrika eta Aitor Sarriegi bertsolariekin.

Igandean goizeko 9:00etan ekingo diote bigarren probari. 13:00etan, antolakuntzak eta Kuruskla elkarteak, jaki tradizionalen osatutako bazkaria eskainiko dute, eta ondoren, sari banaketa egingo dute. Probaren inguruko informazio gehiago, www.bandreskarolo.com webgunean eta sare sozialetan aurkitu ahal izango da.

hilberriak • eskertzak • urteurrenak

**ataria jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN**

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €
HANDIA (124mm X 64mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 € bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



ASTEAZKENA, 2019KO OTSAILAK 20
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetaledea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezere arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidana-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Energiaren kontsumoan %60 aurrezteko neurriak

Gipuzkoako Foru Aldundiak klimatizazioa hobetzeko 1.072.000 euroko inbertsioa egin du Artxibo Orokorrean.

Jon Miranda Tolosa

Gipuzkoako Foru Aldundiak Artxibo Orokorreko klimatizazioa hobetzeko inbertsio garrantzitsua egin du. Zehazki, 1.072.000 euro bideratu dituzte eraikina hobetzera eta horretarako aldundiko Ingurumeneko eta Kulturako sailek bat egin dute.

Biltegiak eta eraikinaren gaineko espazioak klimatizatzeko obrak egin dira, instalazioa berri-tuta, ondare dokumentalaren kontserbazioa bermatzeko beharrezkoak diren tenperatura eta hezetasun balioak mantendu ahal izateko. Bide batez, eraikin osoaren argiteria aldatzeko apro-



Artxiboko eta aldundiko arduradunak, atzo, lanen berri eman aurretik. J. MIRANDA

betxatu dituzte lanak, energia eraginkortasunerako irizpideei jarraituz.

Jose Ignacio Asensio Ingurumen diputatuak azaldu zuen okasio honetan «funtzionaltasuna eta eraginkortasun energetikoa» uztartzen dituen sistema aukeratu dutela. «Energia eraginkortasunaren eta aurrezpenaren arloan horrelako neurriak hartzea ezinbestekoa da klima aldaketari

aurre egiteko», adierazi zuen. Tolosan kokatuta dagoen Gipuzkoako Artxibo Orokorreko klimatizazio, aireztapen eta argi instalazioak zaharkituta zeuden eta ez zituzten beharrezko baldintzak betetzen. Behin lanak burututa, erabilera bakoitzeko sistema bat ezarri eta %60ko aurrezpen energetikoa lortuko da (urtean 240 MWh inguru, 85 tona CO2 eta 30.000 euro baino gehiago).

ZORION AGURRAK



Zorionak attona!

Lizartza. Lizartzako attona Joxe Manuelek otsailaren 18an 84 urte egin zituen. Zorionak attona eta segi holaxe!

ASTEAZKENA 20

AGENDA

Deialdiak

Amezketza. Berdintasuna lantzeko bilerak 17:30ean, kultur etxean. Udalak berdintasuna landu nahi du herritarrekin. Emakume eta gizonak aktibatzeke hausnarketa batekin hasiko dira.

Ikaztegieta. Korrikari begirako egitasmoak antolatzen hasteko lehen bilerak 19:00etan, udaletxeko areto nagusian.

Ikaztegieta. Galtzaundiren irakurle taldean Inazio Mujikaren *Azukreabe-lazeetan* izango dute aztergai, Yurre Ugartek gidatuta, 19:00etan, kultur etxean.

Anoeta. Kaldereroetako entsegua Mikelasagastin, 19:00etan.

EGURALDIA

Iker Ibarluzea

Gaur. Giroa are gehiago epelduko zaigu. Goizean behelaino puntu bat izango dugu, baina goiz erdirako altza eta erabat garbi geratuko zaigu zera egun osoz. Haizeak hego/hego-ekialdeko ukitua izango du, non tarteka bizi joko duen eta tenperaturak igo egingo zaizkigu zertxobait, eguneko erdiko orduetan 15-17 graduan joaz goia.

Bihar. Antzeko giroa eta tenperaturen gorakada berri bat. Hego/hego-ekialdeko haizeak joko du beste behin, tarteka bizi samar gainera eta horrekin tenperaturek beste koska bat gora egingo dute, eguneko erdiko orduetan 16-18 graduan joaz goia, Tolosaldeko txoko-

rik beroenetan 20 gradura gerturatu-ko direlarik. Zeruak ez dubatere aitzakiarik izango. Goi-hodeixkaren bat salbu, giro eguzkitsua izango dugu egun osoan.

ATARIA IRRATIA

09:00-11:00. Pasahitza. Eskualdeko berriak, Iker Ibarluzearekin eguraldia, Saioa Etxegia *Kale Kantoitik*, Idoia Apaolaza psikopedagogoa eta Oskar Tenarekin artearen txokoa.
11:00-12:00. Eutsi goiari. Kirolak.
12:00-13:00. Entzuteko jaioak.
15:00. Playback Ataria. Adrianna Gaultier DJaren musika saioa.
16:00-18:00. Zebrabidea.
18:00-20:00. Goizeko onena.
20:00. (H)ari naizela. Imanol Arto-lak, Felixek, gidatutako bertso saioa.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldetik.
16:30. Ajoarrieroa (Garikoitz Flores).
21:30. Gaurkoan Tolosaldetik.
22:15. Elkarriketap (Ane Labaka).
23:00. 28 Klip.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Edurne Bengoetxea Aiestaran. Kale Nagusia, 7. Telefono zenbakia: 943 67 06 48.
TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza, Amarotz auzoa, 9. Telefono zenbakia: 943 67 5118.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ZORION AGURRAK

943 65 56 95
ataria@ataria.eus
San Esteban 20
Tolosa

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

Argazkia
bi egun lehenago
ekarri mesedez